



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/12/18

11 zuzenketa-eske parzial onetsi dira 2019ko Bizkaiko Aurrekontuen Batzordeetako eztabaidaren hasieran

Bizkaiko Batzar Nagusiek hasierea emon deutesie Batzarretako taldeek Lurralde historikoko 2019ko Aurrekontu Proiektuaren aurrean aurkeztu dituen 676 zuzenketa-eske parzialen eztabaidari. Lehenengo jardunaldi honetan sail honeei jagokezan saioak egin dira: Gizarte Ekintza; Euskera eta Kultura; eta Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesino saila. Hiru saioetan, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak 11 zuzenketa-eske parzial onetsi ditu, eta horrek 1.855.000 euroko hazkundera eragin du 2019ko aurrekontuen aurreikuspenean.

Hiru saioetako eztabaidea eta bozketak bukatu diranean, oposizinoko talde guztiek iragarri dabe zuzenketa-eske parzial guztiak, seguruenez datorren astean Gernikako Batzarretxean egingo dan Osokorako gordetzen dituela. Halan bada, Osokoari, 2019ko Bizkaiko Foru Aldundiaren kontuen behin betiko onespengaz emongo jako bukaerea.

Batzordeko lehenengo eztabaida saioa Gizarte Ekintza Sailaren partidatan zentrau da. Sartu diran 78 aldaketa proposamenen artean bakarra onetsi da, eta horrek 60.000 euroko hazkundera eragin dau aurrekontuetan.

Aldaketea, talde guztien artean hartutako akordioari jagoko, Euskadiko Down Sindromearen Fundazioari bideratutako prestazinoa 60.000 eurotan handitzeko. Holan, igoera horren ostean, partidea, hasierako 168.000 euroetatik 228.000 euroetara pasauko da.

Hori guztia dala eta, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak, 537.820.000 euroko aurrekontua aurkeztuko dau Gernikan egingo dan Batzar Nagusien osokoaren aurrean.

EUSKERA ETA KULTURA

Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak egin dauen bigarren saioan, 2019. urterako Euskera eta Kultura Sailaren aurrekontuaren aurrean aurkeztu diran 86 zuzenketa-eske parzialak eztabaidatu dira. Batzordeak lau zuzenketa-eske onetsi ditu: bat Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek aurkeztutakoa, eta Talde Mistoak eta Foru Gobernua eusten daben taldeek sinatutako hiru zuzenketa-eske transakzional. Guztira, Lorea Bilbaok zuzendutako sailaren aurrekontu aurreikuspena 245.000 euro gehiagokoa izango da.

Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek aurkeztutako zuzenketa-eskearen onespengaz, 2019ko Aurrekontu Proiektuak 45.000 euroko partidea jasoko dau Euskadiko Meatzaritzaren Museoaren Fundazinarako. Zuzenketa-eske transakzional moduan, honeek onetsi dira: irabazi asmorik bako erakundeek udan Bizkaian gazteakaz egiten dituen udalekuetarako eta kanpalekuetarako zuzendutako partidari 50.000 euro gehiago bideratzea; Euskeraren ezagutzaren sustapenari laguntzeko 100.000 euro gehiago

zuzentzea; eta eskola kirolean parte hartzen daberen erakundeei 50.000 euro gehiago emotea.

Hori dala eta, Euskera eta Kultura Sailak, 47.931.274 euroko aurrekontua aurkeztuko dau Bizkaiko Batzar Nagusien osokoa.

GARRAIO, MUGIKORTASUN ETA LURRALDEAREN KOHESINOA

Eztabaidaren lehenengo jardunaldia Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesino sailak itxi dau. Miguel Ángel Gómez Viar Foru Diputatuak zuzendutako Saila izan da, orain arte, aldaketa gehien jaso ditua bere aurrekontu aurreikuspenean. Eztabaidatu diran 60 zuzenketa-eske parzialetatik 6 proposamen onetsi dira –horreetatik bost Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek aurkeztutakoak eta beste bat EH Bilduk eta Foru Gobernuak eusten daberen taldeek sinatutako zuzenketa-eske transakzionala–. Guztira, 1.550.000 eurotan igo dabe aurrekontu proiektua.

Onetsi diran zuzenketa-eske parzialek, igoera eragingo dabe Bizkaiko Lurraldeko hainbat eskualdetako garraio publiko zerbitzura zuzendutako zuzkiduran, “zerbitzua egokitzeko”: 655.000 euro gehiago bideratuko dira Busturialdeko eta Lea Artibaiko garraio publiko zerbitzura; 120.000 euro gehiago Ezkerraldeko-Meatzaldeako garraio publiko zerbitzura; 55.000 euro gehiago bideratuko dira Txorierriko-Mungialdeko garraio publiko zerbitzura; 35.000 euro gehiago Enkarterriko garraio publiko zerbitzuko partidara; eta 635.000 euro gehiago bideratuko dira Nerbioi-Arratia eta Durangaldea garraio publiko zerbitzura.

Oraingo honetan, Jesús Isasi batzordekide popularrak kritikatu egin ditu Foru Gobernuko taldeak, esanez “ez dela zuzena zuek sail honetan hain zenbateko txikiko bost zuzenketa-eske egitea, zuek zarienean aurrekontu proiektua inprimatzea agindu dozuenak”; horren ostean, zuzenketa-eskeen kontrako botoa emon dau. Podemos taldeak be bat egin dau kritikakaz, eta, abstenidu ostean, zuzenketa-eskeetan xehetasun handiagoa eskatu dau. Ildo berean, EH Bilduk bost proposamenen aldeko botoa emon dauen arren, kontua “ez dala oso serioa” adierazo dau.

Beste alde batetik, EH Bildu, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen artean adostutako zuzenketa-eske transakzionalari jagokonez, 50.000 euroko partidea sortzea proponiduten dau, Bizkaiko Garraio Publikoaren 2018-2028 Plan Estrategikoaren inguruan egiten ari dan azterlanean, Bizkairako txartel bakarraren proposamenaren eskumenean, bideragarritasunaren eta kostuaren ganeko atal berezia sartzeko.

Igoera horren ostean, Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesino sailera zuzendutako partidea 141.534.919 eurokoa izango da.

MINUTU BATEKO ISILUNEA

Eguerdiko 12:00etan, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak une batez gelditu egin dau bere beharra Laura Luelmoren hilketea gaitzesteko eta Sestaon, Las Canteras inguruan, hilda aurkitutako adinbakoa oroitzeko.

NOTA DE PRENSA

18/12/18

Aprobadas 11 enmiendas parciales en el inicio del debate en Comisión de los Presupuestos de Bizkaia para 2019

Las Juntas Generales de Bizkaia han dado inicio al debate de las 676 enmiendas parciales presentadas por los diversos grupos junteros al Proyecto de Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico para el año 2019. En esta primera jornada han tenido lugar las sesiones correspondientes a las áreas de Acción Social; Euskera y Cultura; y Transportes, Movilidad y Cohesión Territorial. A lo largo de las tres sesiones la Comisión de Economía y Hacienda ha aprobado un total de 11 enmiendas parciales suponiendo un incremento de 1.855.000 euros en la previsión presupuestaria para 2019.

A la conclusión del debate y las votaciones de las tres sesiones, todos los grupos junteros de la oposición han anunciado que se reservan todas las enmiendas parciales para el Pleno que tendrá lugar, previsiblemente, la semana que viene en Casa de Juntas de Gernika, y que concluirá, en su caso, con la aprobación definitiva de las cuentas de la Diputación Foral de Bizkaia en 2019.

La primera sesión del debate en Comisión se ha centrado en las partidas del Departamento de Acción Social. Se han aprobado una única propuesta de modificación de las 78 introducidas, que han supuesto un incremento de 60.000 euros.

La modificación responde a un acuerdo adoptado por todos los grupos destinado a aumentar en 60.000 euros la prestación designada a la Fundación Síndrome Down País Vasco. De modo que, tras este incremento, la partida pasaría de los 168.000 euros iniciales a los 228.000 euros.

Como resultado de todo ello, el área de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia presentará ante el pleno de las Juntas Generales en Gernika un presupuesto asciende a 537.820.000 euros.

EUSKERA Y CULTURA

En una segunda sesión celebrada por la Comisión de Economía y Hacienda se han debatido las 86 enmiendas parciales presentadas al presupuesto del Departamento de Euskera y Cultura para el año 2019. La comisión ha aprobado cuatro enmiendas: una presentada por los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, y tres enmiendas transaccionales suscritas por el Grupo Mixto, y los grupos que sustentan al Gobierno foral. En total la previsión presupuestaria del área dirigida por Lorea Bilbao se ha visto incrementada en 245.000 euros.

Con la aprobación de la enmienda presentada por los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, el Proyecto de Presupuestos para 2019 incluirá una partida de 45.000 euros para la Fundación Museo Minería País Vasco. En forma de enmienda transaccional,

unánimemente se ha aprobado incrementar 50.000 euros la partida destinada a actividades de verano con jóvenes, para la realización de colonias y campamentos de verano en Bizkaia por entidades sin ánimo de lucro; un incremento de 100.000 euros para ayudas a la promoción del conocimiento del Euskera; y un incremento de 50.000 euros para entidades participantes en deporte escolar.

Por lo tanto, el presupuesto correspondiente al área de Euskera y Cultura que se presentará en el pleno de las Juntas Generales de Bizkaia ascenderá a 47.931.274 euros.

TRANSPORTES, MOVILIDAD Y COHESIÓN DEL TERRITORIO

Ha cerrado esta primera jornada de debate el área de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio. El Departamento dirigido por el Diputado Foral Miguel Ángel Gómez Viar ha sido, hasta el momento, el que más modificaciones ha registrado en su previsión presupuestaria. De las 60 enmiendas parciales debatidas, se han aprobado 6 propuestas – cinco de ellas presentadas por los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos y una transaccional entre EH Bildu los grupos que sustentan al Gobierno foral- suponiendo un aumento de 1.550.000 euros.

Las enmiendas parciales aprobadas suponen un incremento de la dotación destinada al servicio de transporte público de diferentes comarcas del Territorio de Bizkaia “en aras a adecuar el servicio”: 655.000 euros más destinados al servicio de transporte público Busturialdea y Lea Artibai; 120.000 euros más destinados al servicio de transporte público Ezkerraldea-Meatzaldea; 55.000 euros más destinados al servicio de transporte público de Txorierrri- Mungialdea; 35.000 euros más en la partida destinada al servicio de transporte Público Enkarterri; y 635.000 euros más destinados al servicio de transporte público Nerbioi- Arratia y Durangaldea.

En esta ocasión el apoderado popular, Jesús Isasi, ha criticado a los grupos del Gobierno foral manifestando que “no es justo que ustedes hagan cinco enmiendas a este departamento por tan poco importe, cuando son ustedes los que han mandado imprimir este proyecto de presupuestos”; seguidamente ha votado en contra de las enmiendas. A este apunte se han sumado el grupo Podemos, quien, tras abstenerse, ha reclamado más concreción en las enmiendas. En la misma línea EH Bildu, a pesar de que ha votado a favor de las cinco propuestas, ha definido el asunto como “poco serio”.

Por otra parte, la enmienda transaccional acordada entre los grupos EH Bildu, Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos propone la creación de una partida de 50.000 euros para incorporar al estudio que se está elaborando en relación al Plan Estratégico del Transportes público de Bizkaia 2018-2028 un apartado específico en relación a la competencia, viabilidad y coste de la propuesta de billete único para Bizkaia.

Tras este aumento, la partida destinada al área de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio asciende a 141.534.919 euros.

MINUTO DE SILENCIO

Coincidiendo con las 12:00 del mediodía, la Comisión de Economía y Hacienda ha paralizado momentáneamente su sesión para realizar un minuto de silencio en repulsa por el asesinato de Laura Luelmo y en recuerdo de la menor hallada sin vida en la zona de Las Canteras, en el municipio de Sestao.

